

Laburdurak

Gogoratu


Laburdurak hizkuntza bateko hitz arruntak laburtuta emateko modua dira. Adibidez: and. (andrea).

- Letra arruntez idazten da, salbuespen batzuk badiren arren: K.a. (Kristo aurreko).
- Puntu eta guzti idazten da. Salbuespena, neurri izenak. Adib.: m, l, km, cm ...
- Ez zaio sekula atzizkirik erantsi behar. Adib.: alkate jn.-k (ez da zuzena).

1. Lotu hitz bakoitza bere laburdurarekin:

- | | |
|--------------|----------|
| aditza • | • adb. |
| adberbioa • | • izond. |
| adjektiboa • | • iz. |
| izenondoa • | • ad. |
| izena • | • izlag. |
| izenlaguna • | • adj. |

2. Bilatu astegunak adierazteko laburdura egokiak eta idatzi behar den tokian:



1. Astelehena: _____
2. Asteartea : _____
3. Asteazkena: _____
4. Osteguna: _____
5. Ostirala: _____
6. Larunbata: _____
7. Igandea: _____

3. Bilatu hilabeten laburdurak eta idatzi behar den tokian:



- | | |
|------------------|----------------|
| Urtarrila: _____ | Uztaila: _____ |
| Otsaila: _____ | Abuztua: _____ |
| Martxoa : _____ | Iraila : _____ |
| Apirila : _____ | Urria: _____ |
| Maiatza: _____ | Azaroa: _____ |
| Ekaina: _____ | Abendua: _____ |

